

KARMELE MUÑO A ARRIGAIN andreak, Bermeoko Udaleko jarduneko idazkariak,
ZIURTATZEN DOT:

2013ko abenduaren 16an **Tokiko Gobernu Batzarrak** erabagi hau agindu dauela:

16.- BERH@Z BULEGOKO TICKET SISTEMAREN MANTENIMENTSU KONTRATUA 2014. URTERAKO ESLEITZEA.

Xedea

Berh@z bulegoko ticket sistemaren mantenimentsu kontratua 2014. urterako esleitzea.

Aurrekariak

Bakarra: Bere sasoian QMATIC enpresei erositako Ticket sistemaren mantenimentsu kontratua eginbeharra dago. Erosketa: QMATIC SISTEMAS SA enpresea. Antolakuntza Saitetik bideratuta. Antolakuntza Sailak, ondorengo kontratua aukeratu eban 2009an:

MANTENIMIENTO INTEGRAL A TODO RIESGO comprende:

- ✓ *Reparación y sustitución de periféricos.*
- ✓ *Desplazamientos.*
- ✓ *MANTENIMIENTO SOFTWARE que recoge:*
 - i. *Actualización de las nuevas versiones de software que incluye la experiencia acumulativa de más de 80 países con mejoras en funcionalidad y conectabilidad con las actuales tecnologías.*
 - ii. *Atención de incidencias en pocos minutos, vía telediagnosis, internet, etc.*
 - iii. *Asesoramiento funcional y estadístico del sistema.*

Argudioak

Lehenengoa: QMATIC SISTEMAS SA enpresek bere eskaintza aurkeztu dau 2014. urterako. Prezioa: 444,00€+BEZ % 21. Igoerea: % 0. Iraupena: 2014ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra. Xedea: Berhaz Bulegoko txanda sistemaren mantenimentsua.

Bigarrena: Kontratu honen esleipena, indarrean dagoan epean eragiten dauzan obligazio guztiei aurre egiteko kreditu egoki eta nahikoa izatearen baldintzapean geratzen da, horrela izan ezean kontratua etenda gelditu daitekelarik, kontratua indarrean sartu baino ekitaldi bat arinago formalizatutakoa dalako, Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontuei buruzko Abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arauak 56 artikuluan xedatu bezala.

Hirugarrena: Azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak onartu

dauan Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 138.3 artikuluan xedatuta dago hornidura eta zerbitzuetako kontratu txikien mugak, hau da, 18.000,00 €-rainokoak BEZ BARIK, zuzeneko esleipen bidez gauzatu daitekezala. Xedapen hori eta gastu honen zenbatekoa kontuan izanda, legezkoa da zuzeneko esleipena.

Laugarrena: Esleipendunari jakinarazotea udalagaz izango dauzan ahozko eta idatzizko hartu-emonak euskeraz izango dirala eta fakturarik edo bestelako idazkirik aurkeztu behar dauenean euskeraz aurkeztu beharko dauzala.

Erabagia

Goian aitaturako guztia kontuan hartuta, aho batez, honako hau erabagi dau Tokiko Gobernu Batzarrak:

BAKARRA: Berh@z Bulegoan dagoan Ticket sistemaren mantenimentua QMATIC SISTEMAS SA enpreari esleitzea 2012. urterako, kontsignazino nahikoa izatearen baldintzapean, ondorengo ezaugarriekaz:

Xedea: 2014-20 mantenimentu kontratua. Mantenimiento integral a todo riesgo.

Kontratu epea: 2014ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra.

Ordaintzeko epea: Ohikoa.

Gastu osoa: 537,24€ BEZ barne.

Eta honela izan daiten eta ondorio egokiak eragin daizan, alkate jaunaren aginduz eta onetsiaz, ziurtagiri hau idazten dot, eta bere xedea dan erabagia onartu barik dagoan akta batean dagoala adierazoten deusut, behin betiko onespeneraren menpean dagoela ohartarazota, Bermeon, 2013ko abenduaren 18an.

ONETSIA
ALKATEA